

Merkatuaren segmentazioa

Bezeroak dira enpresa bat merkatuan mantentzeko ezinbesteko faktoreak. Beraz, bezeroarekin harreman ona izatea eta hauen beharrak asetzea da ULEM Technology enpresak ezinbesteko dituen jarduerak, izan ere, hauen lehialtasuna gure lana ondo egiten dugunaren seinale da, eta gure enpresa luzaroan bizirik mantenduko duen ezaugarrietako bat.

Aldagai demografikoei dagokionez, bai gizonezko eta bai emakumezkoek erosi ahalko dute gure produktua. Adin tarteak 16 urtetik gorakoa izango da, izan ere, gure produktua motorrak edo quadak gidatu ahal dituzten pertsona guztientzako izango da, eta 16 urteetatik aurrera gida-baimena atera daiteke. Gainera, maila sozio-ekonomiko gehienetara egongo da egokituta gure produktua, diru gutxi izanda hainbat alditan ordaintzeko aukera egongo delako, bezeroaren diru-sarreraren arabera. Aldagai geografikoei dagokionez, merkatu nazionalan mugituko da produktua, hau da, hasiera batean soilik Espainiako herritarrek izango dute hau erosteko aukera, merkatu konkretu batean zentratzeko bezeroen beharrak hobeto asetzuz. Espainian edozein zonaldeko biztanleek erosi ahalko dute produktua, herrian edo hirian bizi arren, errepideak erabiltzen dituzten pertsonentzako delako. Beraz,, motorrak edo quadak erabiltzen dituzten pertsona guztiei dago gure produktua zuzenduta eta ezaugarriak dena delakoak direlarik ere, guztiek dute behar bat: Segurtasuna errepidean...